

MEMORIA



2024EKO INGURUMEN KOMUNIKAZIOAREN ESKOLA

‘HERRITARRAK AHALDUNTZEKO
ELKARRIZKETAK’



AURKIBIDEA

Eskola

03

Elkarrizketak

04

Jarduera praktikoak

09

Hizlariak

11



ESKOLA

Ihobe-Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak eta APIA-Ingurumen Informazioko Kazetarien Elkarteak Ingurumen-komunikazioaren Eskola bultzatzen dute, eta honen 2024ko edizioaren gai nagusia 'Herritarrak ahalduntzeko elkarrizketak' izan da.

Ingurumen-komunikazioaren Eskolak komunikazioaren eta ingurumenaren arloko aditu multzo bat bildu du beste urte batez foro batean, hots, 2019an sortu zenez geroztik **ingurumen-erronka handien komunikazioaren inguruko** hausnarketa-espazio gisa finkatu den foro batean. Seigarren edizioa 2024ko irailaren 12an egin zen, Donostiako Miramar Jauregian, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Udako Ikastaroen baitan.

Edizio berri horretan, eta **'Herritarrak ahalduntzeko elkarrizketak'** lemapean, eskola ingurumenaren arloko profesionalen eta adituen arteko elkarrizketen formatu bihurtu da, gai hauek jorratzeko: nola mugitu herritarrak klima-ekintzara, nola aurre egin klima-krisiari eta beste ingurumen-erronka batzuei, eta zein diren ingurumen-komunikaziorako formatu, euskarri eta kanal berrien aukerak.

Elkarrizketa horiek bi esperientzia praktikoez osatu dira: **Santa Clara eta Hondaleara itsasontziz egindako bisita bat**, modu presentzian parte hartu duten pertsonentzat, eta **'Arriskuetatik klima-ekintzara'** izeneko tailer praktiko bat, bide telematikotik parte hartu dutenentzat.

ELKARRIZKETAK | MIRAMAR JAUREGIA

Ingurumen-komunikazioaren 2024ko Eskola inaugurazio ofizialarekin hasi zen, UPV/EHUko Udako Ikastaroen zuzendari akademiko **Itziar Alkorta Idiakezen** eta lhobeko zuzendari nagusi **Alexander Boto Bastegietaren** eskutik. Euren hasierako hitzaldietan, biek azpimarratu zuten eskola finkatu egin dela, bere sei edizioetan, komunikazioa hedapen, sentsibilizazio eta prestakuntzarako tresna gisa errebindikatzen duen topagune gisa; halaber, lankidetzaz aldetik arrakastatsu bilakatu da, herritarrak klima-krisiaren eta ingurumen-erronken aurrean ahalduntzeko helburua betetzen baitu. Gainera, gogoratu zuten komunikazioa garrantzitsua dela zientziak eskaintzen dituen datuak helarazteko eta desinformazioaz ohartarazteko.

Haien ostean, eskolako zuzendarikideek **María García de la Fuente**, APIAko presidentea, eta **Yolanda Rodríguez Couso**, lhobeko Komunikazio Estrategikoaren arduraduna- hasiera eman zioten ikastaro berriari, ingurumen-komunikazioak garai oparoa bizi duela gogoratu eta hori herritarrei modu zuzenagoan iristeko aprobetxatu behar dela nabarmenduz.

Jardunaldiko lehenengo elkarrizketa **Adela Úcar** kazetariak moderatu zuen, eta, besteak beste, honako gai hauek planteatu zituen: *“zientziaren eta komunikazioaren arteko adostasunaren”* garrantzia, edo *“nola eraman daiteke kontzientzia ekologikoa gizartearen ekintzara”*. Úcarrekin batera, oholtzan Javier Peña Sánchez ingurumen-dibulgatzailea eta Fernando Valladares Ros zientzialaria egon ziren, baikortasunera orientatutako hitzaldi batean, **‘Oraindik ere badugu denbora’** izenburupean.





ELKARRIZKETAK | MIRAMAR JAUREGIA

Javier Peña Sánchez sare sozialetan 2,5 milioi jarraitzaile baino gehiago dituen Hope! komunikazio-proiektuaren arduraduna da, eta bere hitzaldian klima-larrialdia komunikatzeko gako batzuk eskaini zituen, larrialdi hori konpontzeko xedez. Horien artean, ikuspuntu positiboa eskaintzen duten diskurtsoak erabiltzearen garrantzia, irtenbideez eta abantailez hitz eginez, eguneroko arazoekin gehiago konektatzeko. Gainera, ingurumen-dibulgatzaileak aukera izan zuen bere hurrengo serie dokumentalaren trailerra aurkezteko; izan ere, serie horrek mundu osotik bilatzen ditu klima-aldaketa gelditzeko jadanik emaitza ona izan duten alternatibak.

“**Klima-krisia konponduz gero, gizartearen beste arazo asko ere konponduko lirateke, hala nola desberdintasuna**”.

Javier Peña Sánchez

Hope! Planetaren alde zutituta

Beste alde batetik, **Fernando Valladares Rosek**, CSICeko zientzialari eta Rey Juan Carlos Unibertsitateko irakasleak, informazio zientifikoa hedatzearen garrantzia azpimarratu zuen, hori datuak, grina eta estetika uztartuz egin behar dela nabarmenduz. Orobat, beste zientzialari batzuk animatu zituen komunikatzaile bihurtzeko urratsa egitera eta pentsaera kritikoa sortzera, horren bidez ulertaraztearen erronkari heltzeko.

“**Izenburu baten hiru baldintzak honako hauek dira: egiazkotasuna, erakargarritasuna eta informazioa**” **Zero tolerantzia izan behar dugu trazagarria ez den informazioarekin**”.

Fernando Valladares Ros

CSIC



ELKARRIZKETAK | MIRAMAR JAUREGIA

'Herritarren ekintzarako komunikatu' izan zen hurrengo elkarrizketa inspiratzailea, Yayo Herrero López eta Asunción Ruiz Guijosa dibulгатzaileek protagonizatua, ingurumenean espezializatutako Rafael Ruiz Peña kazetariak lagunduta. Elkarrizketa hasteko, Peñak esan zuen beharrezkoa dela "ingurumena pertsonen gogoan modu emozionalagoan sartzea".

Yayo Herrero López ingurumenaren aldeko ekimenetan esperientzia mardula duen aholkulari, ikertzaile eta irakasle bat da, eta aitortu zuen mugimendu ekologistak asko aurreratu duela eta eraldaketa garrantzitsuak lortu dituela kontzientzietan eta politiketan, baina, hori horrela izan arren, oraindik ere aurrera egin behar duela gizartearen eraldaketa antropologikorantz, naturaren partaide sentitu gaitezen.

“**Bada baikortasunerako espazio bat aktibismoarekin; jendea aktibatzen duen palanka aurkitu behar da, eta hedabideek horretan jokatzeko duten rola funtsezkoa da”.**

Yayo Herrero López

-
Ikertzailea

Alde horretatik, **Asunción Ruiz Guijosa** SEO/BirdLife-ren zuzendari eragileak -berau Espainiako naturaren kontserbaziorako erakunde zaharrena da, zazpi hamarkadaz aritu baita- esan zuen ekimen txiki ugari behar direla, zeren horiexek baitira benetako eraldaketak lortzen dituztenak. Azpimarratu zuen, halaber, egon badagoela sentikortasuna, baina informatu behar dela eta entzute aktiboa praktikatuz, eraldaketa hori protagonizatzerantz ausartzeaz batera.

“**Ez dago jasangarritasunik errentagarritasunik ez badago, eta alderantziz”.**

Asunción Ruiz Guijosa

-
SEO/BirdLife

ELKARRIZKETAK | MIRAMAR JAUREGIA

Hurrengo elkarrizketarako, erronka bat planteatu zuen: **herritarren batzar bat eta klimaren aldeko gizarte-itun bat Euskadin eratzea**. Horretarako, Mari Mar Alonso Martín eta Mari Luz Gómez Fernándezek, hurrenez hurren Ihobeko Klima-ekintzaren arloko zuzendaria eta Herritarren Ekintza proiektuaren arduraduna diren aldetik, xehetasunez azaldu zituzten herritarrak klima-aldaketan inplikatzeko xedez Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez abiatutako politikak.

Mari Mar Alonso Martínek azaldu zuenez, erronka nagusia da herritarrek onartzea ezinbestekoa dela klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea; aldi berean, baina, administrazioen ardura da kezka hori azaleratzea.

“**Herritarrak ahalduentzeko, beharrezkoa da komunikatzea eta dibulгатzen jakitea, sentsibilizatzea eta kontzientziaztea, eta eraldaketarako heziketa ematea**”

Mari Mar Alonso Martín

-
Ihobe

Helburu hori lortzeari begira, **Mari Luz Gómez Fernándezek** Euskadin abiatutako hiru tresna azpimarratu zituen: Erronka Garbia metodologia, hots, ekitaldiak egiteari lotuta ingurumenean sortzen diren inpaktu negatiboak minimizatzea ahalbidetzen duen prozedura bat; Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen argitalpena, testuinguru horretan Euskadin 2011az geroztik egindako ekintza nagusien aukeraketa bat aurkezten duena; eta ASTEKLIMA, Euskadiko Klima eta Energiaren Astea, 2019az geroztik herritarrak deitzen dituen lurralde osoan egiten diren hainbat jardueratara, lema honekin: “Ekintza guztiak, txikiak izan arren, kontuan hartzekoak dira”. Helburua da klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren aurrean sentsibilizatzea.

“**Administrazioa garen aldetik, gure betebeharra da egiazkotasunez jokatzeko eta herritarrei informazio zehatza helaraztea**”

Mari Luz Gómez Fernández

-
Ihobe

 **ELKARRIZKETAK** | MIRAMAR JAUREGIA

Goizeko saioa Arantzazulab Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendari nagusi **Naiara Goia Imazek** itxi zuen, hitzaldi honekin: **‘Berrikuntza-ikuspegiak demokrazia indartzeko eta herritarrak ahalduentzeko’**. Bere hitzaldian, Goiak bi gako nabarmendu zituen: krisi globalaren oraingo egoera, bai klima eta dibertsitatearena eta bai demokraziarena; eta herritarren eta administrazioen artean antzematen den gero eta urruntasun nabariagoa. Irtenbide gisa, Goiak proposatu zuen administrazioek arrisku gehiago hartu ditzatela eta herritarrak aldarrikapenetik ardurara pasatu daitezela.

“

“Informatzetik ahalduentzera pasatu behar dugu, eta horrek baditu bere inplikazioak. Bestelako estrategia eta ikuspegiak behar ditugu, hala nola erronketara orientatutako berrikuntza, teknologia, irudimena eta sormena”

Naiara Goia Imaz

-

Arantzazulab





ESKOLA LABURBILDUTA

Luis Guijarro García- APIA



- Has gaitzke ezagutza zientifikoa lurreratzen eta herritarrekin konektatzen.
- Baditugu sare sozialetara egokitutako formatu berriak, baina gehiago aurreratu behar dugu pertsona kontzientziatuen burbuila apurtzeko.
- Ikusten ez dena ez da existitzen, eta prozesu naturalak normalean ez dira ikusten.
- Klima-mezuertarako osasungarria da komunikatzen duten aurpegi gehiago egotea.
- Denbora asko zuzentzen dugu gaurkotasunera, baina ez gara ulertzera iristen.
- Irtenbideen agenda oso desiragarria den zerbait da, ondo azaltzen bada.
- Hedabideen rola funtsezkoa da, eta azken urteetan aurrerapen nabariak egin dira.
- Interesgarria izango litzateke beste sare batzuk agertzea, masa kritikoa sortzeko.
- Eraldaketarako enpatia eta ausardia behar dira.
- Tokiko hedabideek bai hitz egiten dute ingurumen-gaien alde positiboaz, eta gainera oso ondo egiten dute.
- Instituzioen, herritarren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren sare bat indartu behar da, eta koordinazioarekin gai izango gara gure erronkei gizarte moduan erantzuteko.
- Ikasteko modu bakarra galdetzea da.
- Irudimena beste kompetentzi a bat bezala lantzea.

»»»» JARDUERA PRAKTIKOAK

Eskola arratsaldeko deialdi bikoitz batez itxi zen. Alde batetik, **Santa Clara uhartera eta Hondalea obrara itsasontziz egindako bisita bat**, Cristina Enea Fundazioak antolatua. Itsas ibilaldian, bertaratutako pertsonak aukera izan zuten Donostiaren aurrean kokatutako uhartearen ingurune naturala ezagutzeko -Interes Nazionaleko Zentro deklaratu da-. Gainera, Cristina Iglesiasek egindako instalazio artistikora sartu ziren; berau itsasargiaren etxean hondeatuta dago, euskal kostaldearen geologia eta ekologia berezia txertatuz, uhartera inguratzen duen ozeanoaren olatuen zakartasunarekin batera.

Eskola modu telematikoan jarraitu zuten pertsonak, berriz, **tailer praktiko** bat zuten prestatuta, Adesioko bazkide sortzailea den **Stéphane Kosinskiren** eskutik -Adesio agentzia bideratzaile bat da, erakundeei laguntzen diena eredu jasangarriagoetarako bidean-. Kasu honetan, Kosinskik parte-hartzaileei lagundu zien arriskuetatik ekintzara zihoan ibilbide batean. Horretarako, bideratzaileak 'quiz' moduko dinamika kolaboratibo bat proposatu zuen, ikasleek klima-aldaketaren arloko gaiez zeukaten ezagutza testatzeko eta kontzeptuak argitzeko. Tailerra kasu praktiko batez osatu zen; bertan, parte-hartzaile guztiek irtenbide jasangarri bat eskain zioten erakunde bati.



Santa Clara uhartera itsasontziz egindako bisita

Itsasargiaren Etxea Hondalea





ELKARRIZKETA ERALDAKETARAKO TRESNA GISA

INAUGURAZIO INSTITUZIONALA



ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ

UPV/EHUko Udako Ikastaroen zuzendari akademikoa

Ingurumen-komunikazioaren Eskola bere 6. ediziora iritsi da, zorionez, finkatutako hausnarketa eta eztabaida-foro gisa. Aurten, bere ardatza da hedabideek jokutzen duten funtsezko rola herritarrak klima-aldaketari buruzko politikekin lotutako alderdi guztietan ahalduzko, zeren gai horrek berebiziko garrantzia baitu gure demokrazien kalitatea segurtatzeko.



ALEXANDER BOTO BASTEGIETA

Ihobe - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren zuzendari nagusia

Biodibertsitatea edo ingurumenaren bilakaera ikuspegi globaletik neurtzea oso konplexua da, eta zientziaren informazioa politikaren edo herritarren gakoetara eramatea oso zaila da. Horregatik, ingurumen-informazioa gero eta garrantzitsuagoa da, eta eskola honek komunikazioa errebindikatzeko du herritarrak inplikatzeko tresna gisa. Erronka da estrategia eraginkorrenak identifikatzea, egiazko informazioa identifikatzeaz batera.





ELKARRIZKETA ERALDAKETARAKO TRESNA GISA

“ELKARRIZKETA INSPIRATZAILEA: ORAINDIK ERE BADUGU DENBORA”



JAVIER PEÑA SÁNCHEZ

“Hope! Planetaren alde zutituta” ekimenaren arduraduna

Komunikatzaile gisa betetzen dugun rola transmititu behar du krisi klimatiko eta ekologikoa konpontzen bada ekonomiaren, gizartearen eta osasunaren arloko arazo asko ere konponduko direla. Gizateria gisa eboluzio-jauzi bat egiteko aukera bat da. Irtenbidearen bidea irudikatu behar dugu, modu erakargarrian, aldaketarako nahi kolektibo hori mobilizatzeko.



FERNANDO VALLADARES ROS

CSICko zientzialaria eta URJCKo irakaslea

Dibulgatzaile zientifiko gisa ikasi dut noraino den garrantzitsua komunikazioa interesgarri bihurtzeko ahalmena, zeren ikusten ez dena ez baita existitzen. Adibidez, prozesu ekologikoak, biodibertsitatearenak edo karbono-finkapena ez dira ikusten. Beharrezkoa da datu zientifikoak grinarekin eta estetikarekin konbinatzea, eta ez dut zorrotasunarekin soilik geratu nahi. Zientzialari eta kazetariok hurbildu egin behar gara eta pentsaera kritikoa sortu behar dugu.





ELKARRIZKETA ERALDAKETARAKO TRESNA GISA

“HERRITARREN EKINTZARAKO KOMUNIKATU”

YAYO HERRERO LÓPEZ

Aholkulari, ikertzaile eta irakaslea



Mugimendu ekologistak asko egin du aurrera eta eraldaketa garrantzitsuak lortu ditu kontzientzia eta politika publikoetan, baina oraindik ere falta zaio gure gizartearen eraldaketa antropologikoa egitea. Gure garaian nagusi den logikaren arabera, dena sakrifikatu daiteke ekonomia haztea lortzen badugu. Badirudi planetaren jasangarritasunak talka egiten duela giza jasangarritasunarekin. Ingurumen-komunikazioa funtsezkoa da, eta testuinguru horretan ikasi dut zein garrantzitsua den kazetariaren trebetasuna gertaera garrantzitsu bat gaurkotasuna duen gai batekin konektatzen jakiteko.

ASUNCIÓN RUIZ GUIJOSA

SEO/BirdLife-ren zuzendari eragilea



Ingurumen-gaiak garrantzitsuak edo oso garrantzitsuak dira 10 pertsonetatik 9 pertsonentzat. Badago baikortasunerako espazioa, baina jendea aktibatu behar da eta eraldaketa txikiak zerbait pertsonal bezala sentitzera bultzatu. Ez dago jasangarritasunik errentagarritasunik ez badago, eta alderantziz. Komunikazioan entzute aktiboa praktikatu behar da. Kontua da natura kontagiatzea, protagonistak erakustea, natura berpiztea eta lehengoratzea. .





ELKARRIZKETA ERALDAKETARAKO TRESNA GISA

“ERRONKA: HERRITARREN BATZARRA ETA KLIMAREN ALDEKO GIZARTE-ITUNA EUSKADIN”

MARI MAR ALONSO MARTÍN


Ihobeko Klima Ekintzaren arloko zuzendaria



Klima-ekintzaren muina desberdinen artean erlazionatzea da, eta zientziak bidaltzen digun seinalea da zerbait egin behar dugula orain klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko. Oraingo nobedadea da ekintza horiek gizarteratzea eta ukigarri bihurtzea. Pertsona guztiok ez dugu ardura berdina, baina noranzko beretik joan behar dugu. Klimaren inguruan ahalduntzeko, beharrezkoa da komunikatzea eta dibulгатzen jakitea, sentsibilizatzea eta kontzientziatzea, eta eraldaketarako heziketa ematea. Berrikuntzak bete-betean sartu behar du administrazioan.

MARI LUZ GÓMEZ FERNÁNDEZ

Ihobeko Herritarren Ekintza proiektuaren arduraduna



Iraultza bat egotea nahi badugu, larrialdi egoeran gaudelako da, eta administrazioetik ekintzak sustatu behar ditugu trantsizio hori azkartzeko. Herritarrak inplikatzeko, informazio-gai garrantzitsu bat dagoen unea bilatzen saiatzen gara eta jendearenganaino iristen diren jarduerak gauzatu, eta parte-hartzera bultzatu, zerbaiten partaide garela sentiarazi.






ELKARRIZKETA ERALDAKETARAKO TRESNA GISA

“BERRIKUNTZA-IKUSPEGIAK DEMOKRAZIA INDARTZEKO ETA HERRITARRAK AHALDUNTZEKO”

NAIARA GOIA IMAZ

Arantzazulab Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendaria



Bizi dugun krisi sistemikoaren erronka dugu aurrez aurre: klima-krisia, gatazka belikoak, desberdintasunak, demokraziaren krisia... Eta garbi izan behar dugu erronka horien eta irtenbideen bilaketaren arteko erlazioa ez dagoela esku pribatuetan. Gure erronkei erantzuteko modu bakarra da lankidetzaren sare bat indartzea instituzioen, herritarren eta gizarte zibil antolatuaren artean. Kontua da irtenbide sistemikoak bilatzea.





“

“2024ko Ingurumen-komunikazioaren Eskolak herritarrak klima-krisiaren erronkaren aurrean inplikatzearen garrantzia errebindikatu du, eta baita kontzientziatuen burbuila apurtzearen eta klima-ekintzan oraindik ere inplikatuta ez daudenenganaino iristen diren formatu berriak bilatzearen garrantzia ere”

”

MILA ESKER



BATZORDE ANTOLATZAILEA



UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES



Donostia
Sustainability
Forum



APIA



ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD